
III. Balmasedako Emakume eta Gizonen arteko berdintasun Plana
2015 – 2019



Dirulaguntza:



AURKEZPENA

2010.ean, Balmasedako Udaleko II Berdintasun plana adostatzen da, Balmasedako emakume eta gizonentzako berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko etapa berri bat hasiz.

Hasitako lanarekin jarraitzeak orain arte egindako bidea berrikustea eskatzen du, behar berriak hautemanetz, edukietan zein lan egiteko eratan, eta baita Berdintasunerako Euskal Legearen arau zuzendarira egokitzea ere. Etapa berri horretarako, Balmasedako Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Balmasedako III. Plana martxan jartzea erabaki du, erakunde horrek duen konpromiso argiaren isla gisa.

Egindako ebaluazioek erakusten dute aurrerapen garrantzitsuak lortu badira ere, oraindik ere baztertu beharreko desberdintasunek hor jarraitzen dutela. Gure iritziz, plan hori oso tresna egokia da berdintasunaren aurrerapenerako, eta plan barruko estrategia nagusia, gure udaleko jardueretan eta egiteko moduetan genero ikuspegia sartzeko izango da, gure gizarteko eremu guztietan berdintasunean oinarritutako emaitzak bermatzeko, gizartearen kohesiorako, eta gure herriaren garapenerako eta ongizaterako beharrezkoa izango den faktore gisa.

Plana eraikitzeke prozesuan kontuan izan dira zinegotzigoak, eta baita hainbat agente politiko eta sozial ere. Plan hau jarduketa publikoetan genero ikuspegia sartzeko erreferente erabilgarri bilakatzea nahi badugu, ezinbestekoa izango da Udaleko alde guztien eta Balmasedako emakumeen eta gizonen konpromisoarekin jarraitzea.

AURKIBIDE

AURKEZPENA.....	2
1. SARRERA	4
2. LEGE TESTUINGURUA ETA BALMASEDAKO UDALAREN AURREKARIAK BERDINTASUNAREN ALORREAN.....	6
3. BERDINTASUN PLANA BURUTZEKO PROZESUA.....	9
3.1. BARNE DIAGNOSTIKOA ABIAPUNTU GISA	9
3.2. ERAGIN PLANA	11
3.3. PLANAREN INPLEMENTAZIO ETA GARAPENA.....	12
4. PLANA EZARTZEKO NEURIAK.....	13
4.0. EKINTZA PLANAREN EDUKIA.....	13
4.1. PLANAREN GARAPENERAKO NEURRIAK.....	14
4.2. PLANAREN GARAPENERAKO NEURRIAK.....	15
4.3. EKINTZAK ZINEGOTZIGOKO.....	16
4.4. PLANIFIKAZIOA OPERATIBOA.....	22
4.5. JARDUKETA ESTRATEGIKOA.....	22
5. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA.....	27
6. GLOSARIA.....	30

1. SARRERA

“Desberdintasuna ez da zuzena, ez da inteligentea eta garestia da”. Horiexek izan ziren Ferry Davisek, Europako Kontseiluko Idazkari nagusiak 2006an Stockholmen burutu zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Europa mailako ministroen seigarren konferentzian esan zituen hitzak. Halaber, Jöelle Milquete ministro belgikarrak, 2010. urtearen hasieran, esaten zuen “emakumeen erabateko eskubide berdintasunak bermatu egingo zituela Europar Batasuneko gizarte segurantza eta pentsio sistemak, %15 eta %40 artean igoko zituelako BPG-aren indizeak”. Halaber, izen handiko pertsonak esandakoaren arabera, genero berdintasun falta horren ondorioz, Euskadiren BPG 6.200 milioi euro txikiagoa da, eta adierazten dute “Berdintasun faltaren ondorioz prezio onartezina ordaintzen ari garela. Ondorioz, ezinbestekoa da arazo hori konpontzea. Eta Euskadi ‘lehen munduan’ [Berdintasunaren munduan] kokatu behar dugu.” (Emakunde. Defentsoria, Gasteiz)

Euskal administrazio publikoari, generoan oinarritutako edozein diskriminazio baztertzeko bidean jarduteko egiten zaion eskaria, Eusko Legebiltzarrak onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legean biltzen da. Araudi zuzendari hori pauso koalitatiboa da prozesuan. Baieztatu egiten du, alde batetik, generoaren araberrako aldeak daudela gure erkidegoaren zenbait esparrutan eta, bestetik, hori desagerraraztea eragingo duen agintea ezartzen du. Halaber, Balmasedako Udalak duela hamar urte baino gehiago hasi zituen berdintasun alorreko jarduketak berresten ditu, eta jasangarritasun eta sistematizazio ezaugarriekin konpromiso handiagoa duen jarduketa ezartzen du.

Berdintasuna lortzeko lege eta ezarpen esparrua emakumeen elkarrean eta elkarrekin feministen errebindikazioa da, eta ibilbide luzea egin du. Berdintasunerako lehenengo araudiak hogeigarren mendearen erdialdean sortu ziren, Nazio Batuen erakundearen. Errebindikazio horiekin batera, gainerako araudietan ere genero ikuspegia sartzeko eskariak sortu ziren. Horrela, Vienako 1993ko Konferentzian, lehen aldiz, emakumeen eta neskatuen sexu eta ugalketa eskubideak sartu ziren

lehen aldiz Giza Eskubideen Adierazpenean. Genero ikuspegia sartzeak, politika berberak emakumeentzat eta gizonentzat izan dezakeen eragin diferentziala kontuan izatea eskatzen du, beharrezkoa balitz, politika hori bideratu ahal izateko. Europar Batasunak gauza bera esaten du, adierazten duenean, itxuraz sexistak ez diren erabaki politikoei eragin desberdina izan dezaketela emakumeengan eta gizonengan, ondorio hori aurreikusi ez bada eta bilatzen ez bada ere. Horrela, genero ikuspegia sartzearen helburu nagusia, bilatzen ez diren ondorio negatibo horiek saihestea eta politiken kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea da.

Dokumentu hori honela egituratuta dago: sarrera honen ondoren, **bigarren kapituluan**, lege testuinguruari eta Balmasedako Udalak berdintasunaren alorrean dituen aurrekari buruzko ibilbidea egiten da. **Hirugarren kapituluak**, plana ezartzeko aurrera eramandako **elementu nagusien** berri ematen da: **ebaluazioek** genero alorreko aldeak daudela baieztatu dute, eta hobekuntzarako ekintzak identifikatu eta aukeratu ahal izan dira, edukietan zein ezarpenerako estrategietan. **Laugarren kapituluan** planaren **xedea** ezartzen da, hiru **oinarriren** arabera: Balmasedako Udalaren konpromiso zehatza ezartzea, oinarrizko eta erreferentziazko tresna bilakatzea eta parte hartzeko ildo estrategikoak ezartzea, jasangarritasun eta sistematizazio irizpideak erabiliz. Halaber, emaitza objektibo neurgarriak izango dituen plan operatiboa aurreikusten da, urtero eguneratu eta ebaluatu daitekeena. Planaren jarraibideek zehaztasun osoz jarraitzen dute Euskadiko 4/2005 Legea eta Emakunderen V. Planaren ardatzetara eta ildo estrategikoetara egokiturik daude. Bi ekintza mota ezarri dira: **ekintza orokorrak**, Udal osorako eta **ekintza bereziak** zinegotzigo bakoitzerako. Genero ikuspegia sartzea eta ekintza positiboan oinarritutako ekintzak, egin behar denaren adierazpen zehatza dira, eta egutegia, gutxi gorabeherako aurrekontua eta ebaluazio adierazleak dituzte, eta baita urteko plangintza ere. Oraingo honetan, 2010-2011 lehen ekitaldirako plangintza, hain zuzen ere.

Gure eskerrona adierazi nahi diegu Udaleko pertsona guztiei, eta baita agente politikoei eta sozialei ere, Balmasedako Emakumearen Etxean parte hartzen duten elkarteei batez ere, oso ekarpen baliotsuak egin baitizkiote prozesuari.

2. LEGE TESTUINGURUA ETA BALMASEDAKO UDALAREN AURREKARIAK BERDINTASUNAREN ALORREAN

Emakumeak protagonista izan dituen berdintasunerako martxak aldaketak eragin ditu herri administrazioaren jarduketan. Horrela, lege testuinguruak eta aurrekariak ibilbide luzea dute gaur egun herri erakundeen aldetik. Azken garaietan, eremu pribatuko erakundeek bat egin dute emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko martxarekin.

Erakunde Batuak, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin konpromisoa duen eta sustatu nahi duen erakunde gisa, benetako berdintasun eraginkorra lortzea bermatuko duten neurriak martxan jartzea eskatzen die bertako kide diren herrialdeei. Neurri horiek alor guztiak hartu beharko dituzte, politika, gizartea, ekonomia eta kultura, batez ere. Erakunde horrek berdintasunarekin duen konpromisoa, honako puntu hauetan islatzen da, batez ere: 1975. urtea Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatzean; 1979an CEDAW (Emakumeen aurkako edozein motatako bazterkeria desagerrarazteko batzordea) eratzean; Mundu mailako konferentziak ospatzean Mexikon 1975ean; Kopenhagen, 1980an; Nairobin, 1985ean; eta Pekingean, 1995ean. Talde feministen eta emakume elkartearen errebindikazioen ibilbide indartsu eta etengabe hori, jarduketa publikoak gero eta era eraginkorragoan eta iraunkorragoan bultzatzeko baliagarri bada ere, prozesu geldoegia ari da izaten berdintasunaren gozamenerako eta kontrolerako aurrerapausoei dagokienez, Nazio Batuen ebaluazioek behin eta berriro erakusten dutenez.

Gauza bera esaten du Europar Batasunak. Izan ere, 1995ean Pekingean burututako mundu mailako konferentziaren lekukoa hartuz, genero ikuspegia erakundearen prozesu eta prozedura guztietan integratzearen aldeko apustua egiten baitu. *Gender mainstreaming* edo genero zeharkakotasuna izenez ezagutzen den lan egiteko era horretan, ezinbestekoa da politika berberak emakumeengan eta gizonengan izan dezakeen eragin desberdina kontuan izatea, politika hori zuzentzeko, beharrezkoa balitz. Horrela, EB-k esaten du itxuraz sexistak ez diren erabaki politikoek eragin desberdina izan dezaketela emakumeengan eta gizonengan, ondorio hori aurreikusi ez bada eta bilatzen ez bada ere. Horrela,

genero ikuspegia sartzearen helburu nagusia, bilatzen ez diren ondorio negatibo horiek saihestea eta politiken kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea da.

Estatu espainiarrean, nazioarteko eskakizunei erantzunez, berdintasunaren trakzio prozesua bultzatzen duen lege alorra garatu da azken urteetan. Azpimarratzekoa da Espainiako Legebiltzarraren emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 lege organikoa. Lege horrek inplikazioak ditu herri administrazioentzat eta baita sektore pribatuko enpresentzat ere.

Gure erkidegoan, Eusko Legebiltzarrak onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legeak, jarduketa era berrien, zeharkakotasunaren eta ekintza positiboaren lekukoa hartu du, eta gure erkidegoan berdintasuna bultzatzen eta aurrera eramaten du. Legeak, Euskadiko botere publikoek berdintasunaren alorrean aurrera eraman beharreko jarduketa araupetu eta bideratu behar duten zortzi printzipio nagusiak ezartzen ditu: tratu berdintasuna; aukera berdintasuna; aniztasunaren eta desberdintasunaren aurreko errespetua; genero ikuspegiaren edo genero zeharkakotasunaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolen eta estereotipoen bazterketa; ordezkartza orekatua; administrazio organoetan eta pertsona anitzekoetan bi sexuek gutxienez %40ko ordezkartza izatea; elkarlana eta koordinazioa administrazioen eta erakundeen artean.

Balmasedako udala erakunde aitzindaria da gure erkidegoan berdintasunaren aldeko jarduketetan, eta ibilbide esanguratsua eta konpromiso argia erakutsi du berdintasunarekin. Hala ere, argi dago hainbat erronka daudela oraindik berdintasunaren benetako lorpen eraginkorrerako eta, ondorioz, berriztatu egin du duela hamar urte baino gehiago hasitako lana, oraindik ere indarrean dauden desberdintasunak desagerrarazteko neurriak, programak eta ekintzak aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak ezarriz. Hori dela eta, Berdintasun Planaren marko berri honen garapena ezinbesteko tresna bilakatu da prozesuaren etapa honetan.

Berdintasun alorreko lehenengo jarduketek, 2000. urtean onetsi zen Balmasedako Udaleko Ekintza Positiborako I. Udal Plana sortu zuten; garai hartan berdintasun teknikari bat hasi zen lanean, jarduketa horiek bultzatzeko. Halaber, azpimarratzekoa da, 2002ko urtarriletik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiko Aldun

Nagusiaren Bulegoak bultzaturiko Genero Politiken Sailak kudeatutako Parekatuz Sarean ere hartzen duela parte. Hori beste elementu garrantzitsu bat da erakunde honek berdintasunarekin duen konpromisoan.

2003. urtetik, Balmasedako Udalak, aholkularitza zerbitzua eskaintzen die emakumeei, beraien bizitza pertsonalari, familiako bizitzari eta lanari dagozkien zenbait gairi buruzko informazioa jaso dezaten. 2004.eko Martxoan, "Emakumearen Etxea" sortzen da, parte hartzeko eta elkartzeko gunea, zeinek, Balmasedako hiritarren onespén handia daukan.

2010.ean Balmasedako Udaleko II Berdintasun Plana adostaten da, Balmasedako emakume eta gizonentzako berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko etapa kualitatibo berri bati hasiera emanez; genero zeharkakotasuna ezarriz bere politika eta egituren sormen eta egokipenean, zeinek Planaren ezarpen jasagarri bat ahalbidetzen duen. Hala nola emakume elkarteentzako laguntza ekintzak eta sentsibilizaziokoak, hiritargoari zuzenduta. Zentzu honetan, aurrerapen garrantzitsua eman da barne-erakunde koordinazioan genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arretari dagokionez.

Hasitako lanarekin jarraitzeak orain arte egindako bidea berrikustea eskatzen du, behar berriak hautemanaz, edukietan zein lan egiteko eratan, eta baita Berdintasunerako Euskal Legearen arau zuzendarira egokitzea ere. Etapa berri horretarako, Balmasedako Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Balmasedako III. Plana martxan jartzea erabaki du, erakunde horrek duen konpromiso argiaren isla gisa.

3. BERDINTASUN PLANA BURUTZEKO PROZESUA

Plana, Balmasedako Udalaren ibilbidearen ondorio da. Oraindik ere hautematen diren beharrak identifikatu, hobekuntzak ezarri eta jarduketarako eremu berriak antzeman nahi ditu. Burutzapenerako aurrera eramaten den prozesua **hiru** jarduera nagusitan zehazten da: aurreko planaren eta burututako ekintzen **ebaluazioa**; Balmasedako udaleko lantaldearen eta hiritarren **diagnostikoa**, genero ikuspegia kontuan izanik; eta baita inplikaturako aldean **parte hartzea**, barrukoak eta kanpokoak, jarduketak definitzeko orduan.

3.1. BARNE DIAGNOSTIKOA ABIAPUNTU GISA

“Balmasedako udaleko lantaldearen diagnostikoa, genero ikuspegia kontuan izanik” izenekoa, Berdintasun, Osasun eta Inmigrazio Zinegotzigoak hartutako konpromisoaren barruan sartzen da. Halaber, 4/2005 legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako ematen duen agindua jasotzen du (7e artikulua). Diagnostiko hori, halaber, Balmasedako udalerriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planeko ekintzak aukeratzeko oinarrizko tresna bilakatzen da, bideko orrian ezarritako aldaketa prozesua sendotzeko aukera emango duten tresnak baititu.

Diagnostikoaren informea beste dokumentu batean jasota dago.

Diagnostikoa diseinatzeko orduan helburu estrategiko bat izan zen kontuan: ahalik eta pertsona gehien prozesuko partaide bilakatzea, barrukoak zein kanpokoak izan. Eta horren burutzapenerako zenbait ikerketa teknika jarri ziren martxan.

Horrela, planifikazio metodologikoa bi helburu estrategiko hauen arabera burutu zen, lau ikerketa teknika nagusi martxan jarri zirelarik:

- 1) Udaleko dokumentazioaren bilketa eta azterketa, berdintasun politikei dagokienez, batez ere. Prozesu horri esker, berdintasun politiken ezarpena hobetzeko erronkak eta aukerak identifikatzeko aukera eman digu.

- 2) Lantaldeen datu baseen azterketa, aukeratutako zenbait aldagaitan oinarrituta. Azterketa horri esker, lantaldearekin berarekin erlazionatutako zenbait jarduketa hautemateko aukera eman digu. Segregazio bertikala eta horizontala dagoela egiaztatu ahal izan da, eta horrek hobekuntzarako jarduketak identifikatu direla esan nahi du.
- 3) Lau gai-bloke handi lantzen zituen galdetegia bidaltzea langile guztiei: berdintasunari buruzko lege araudia ezagutzea, berdintasun alorreko prestakuntza, sexu jazarpena eta jazarpen moralak eta bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren arteko konziliazioa. Galdetegi horren azterketak honako jarduketa alor hauek hautemateko aukera eman digu: berdintasunari buruzko lege araudia ezagutaraztea; berdintasun alorreko prestakuntza ezartzea (adibidez, genero ikuspegiaren aplikazioa lanpostuaren jardueretan...); dauden eskubideei buruzko informazioa ematea (konziliazioa...); sexu jazarpenaren eta jazarpen moralaren eragin txikia, eta prebentziorako jarduketa protokoloak definitu beharra; horrez gain, gizonezkoen erantzunkidetasuna ere sustatu beharra ikusi da.

Elkarrizketak egitea udal korporazioko kide bakoitzarekin eta eztabaida taldeak teknikariekkin. Teknika horien helburua bi aldetatik informazioa jasotzea zen: alde batetik, informazio idatzia osatuko duen udalaren berdintasun alorreko ibilbideari buruzko informazioa eta, beste alde batetik, zinegotzigo bakoitzerako jarduketa eremu bereziak identifikatzea. Horri esker, sail bakoitzerako eta sail horren hartzaileentzako eskumen bereziekin erlazionatutako jarduketak identifikatu ahal izan ditugu, biztanleengan nahi den eragina sar dezaten, generoaren arabera. Horrela, emakumeek eta gizonek udalerrian duten egoerari buruzko zifrak bildu ziren, eta hori oso lagungarria izan da desberdintasunak saihestera eramango gaituen emakumeen eta gizonen beharren, baldintzen eta egoeren definizio zehatzagoa lortzeko, baita genero berdintasunaren aurrerapenerako politikena ere.

3.2. ERAGIN PLANA

“Balmasedako Udaleko lantaldearen diagnostikoa genero ikuspegiarekin” oso elementu garrantzitsua da beste elementu batzuen bitartez osatu eta hobetu diren ekintzak definitzeko orduan:

- 1) “Balmasedako II. Udal Planaren” azterketa, bi ikuspegitatik: zeharkako jarduketa orokorrak berreskuratzea, erakunde osoari dagozkionak (hizkuntza ez sexista, datu desagregatuak, prestakuntza, partaidetza parekidea...) eta hobekuntzarako jarduketan identifikazioa. Halaber, egin ez diren ekintzak eta horien zailtasunak ere jaso dira, eta oraindik ere estrategikotzat hartzen diren jarduketekin jarraitzea aurreikusi da.
- 2) Balmasedako biztanleriari buruzko datuen azterketa, emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak erakusten dituzten dimentsioak landuko dituzten jarduketa ildo bereziak ezartzeko xedez.
- 3) Zinegotzigoen partaidetza, arduradun politikarien bitartez zein teknikarien bidez, ekintzak identifikatzeko eta aukeratzeko, buruzapenerako egutegia, aurrekontua, arduraduna... ezartzeko funtsezko datuak emanaz.
- 4) Emakumeen elkarten partaidetzaren sustapena, ekintzen proposamenak egin ditzaten.
- 1) Legealdiaren helburuak lortzeko aurreikusitako jardun estrategikoa, **Gastu publikoko programetan berdintasun printzipioa barneratzeko Gida-Plana** da: Diru-laguntzak, Kontratuak eta Hitzarmenak 2015-2019. Diagnostikotik ateratako neurriak **24** dira. Zabaltze estrategikoa batez ere “Berdintasunerako Gobernantza Ardatza”n oinarritzen da, organizazio osorako zeharkako ekintza baita. Bere definizio zehatza 4.5 puntuan kokatzen da.

Ekintzen definiziorako prozesu hori, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legeak eta Emakundek, planaren ezarpenerako eta garapenerako eman dituen jarraibideek zuzendu dute.

3.3. PLANAREN INPLEMENTAZIO ETA GARAPENA

- ✓ **Planaren onarpen formala:** Osoko Bilkuran
- ✓ **Zabaltze eta inplementazioa:** Planaren barne eta kanpo zabalpena.
- ✓ **Planaren Iraunaldi eta Programazioa:** Lau urte 2015-2019, legealdi oso bat. Ekintzen programazioa urteko Plan Operatiboan islatuko da, zein Osoko Bilunran onartua izango den.

- ✓ **Aurrekontua Aurrekontua**

Ekintzak udaleko lantaldeak burutzea aurreikusten da, horrela, aurrekontua lan taldearen lan ordu kopuruari dagokio, 3 ekintza salbu, zeintzuek aurrekontu zehatza daramaten:

9. Ekintza. Genero eraginaren funtzioaren arabera udaletik bultzatzen diren jaiak eta ekintza kulturalak ebaluatu, eta rolen ezabapenerako eta berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko zuzentze-ekintzak eskaini: 7.500 €

11. Ekintza. Emakumearen Etxearen dinamizazioa, hau mantentzeko behar diren giza errekurtsuak eta ekonomikoak eskainiz: 310.750 €

18. Ekintza. 2016-2018 Genero bortizkariaren aurkako prebentzio, arreta eta koordinazio **Diagnostiko eta Plan** baten garapena Balmasedean: 15.000 €

- ✓ **Planaren kudeaketarako egiturak.**

Bultzada instituzionaleko barne egiturak:

Alkatetza eta Berdintasun, Osasun eta Inmigrazio Zinegotzigoa

Kolaborazio eta koordinazio instituzionaleko egiturak

Gobernu-Batzordea, Alkateak zuzendua, eta zinegotziek osotua.

Berdintasun, Osasun eta Inmigrazio Komisioa, saileko zinegotzia eta bai gobernu nola korporazioko adierazleek osotua.

"Berdintasuna Taldea" Herri taldea, saileko zinegotziak zuzendua eta ardurapen teknikoa duten taldeak osotua.

Kolaborazio eta partehartzen sozialeko egiturak:

- "Berdintasunerako Foroa" Balmasedako emakumeen elkarteek osotua.

4.0. EKINTZA PLANAREN EDUKIA

Balmasedako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III Plan honek, hurrengo elementu klabeak ezartzen ditu ekintzak burutzerakoan:

- **Zinegotzigoak.** Udaleko **8** interbentzio sail funtzionalak:

Alkatetza; Heziketa, Euskara eta Gazteria; Ekintza Soziala eta teknologia Berriak; Berdintasuna, Osasuna eta Inmigrazioa; Barne Erregimena, Ogasuna eta Dinamizazio Ekonomikoa; Urbanismoa eta Ingurugiroa; Kultura, Kirolak eta Jaiak; Obrak, Mendiak, Ondare eta Auzoen Koordinazioa.

- **Ardatz estrategikoa:** Hurrengo urteetan landuko diren berdintasun politiken arloan lehentasuna daukaten horiek definitzen dute. **Hiru** ardatz estrategiko identifikatzen dira: Balore aldaketa eta ahalduntzea; Antolaketa sozial ko-erantzulea; eta, emakumeen aurkako bortizkeriaren erauzteak. **Gobernantza** ekintzetaz aparte.
- **Programak:** Ekintza eremuak dira. Zinegotzigo bakoitzean berdintasun politiken ardatz estrategikoak nola zehazten diren definitzen dute. Beraz, gutzienez, interbentzio programa bat dago ardatz bakoitzeko.
- **Helburuak:** Programak helburuengatik osotuak daude, zeintzuek aldatu nahi den errealitate soziala definitzen dute. Helburuak, egin behar denari lehentasuna emateko funtzioa betetzen dute, baita zehaztekoa ere, proposaturiko indikadoreen bitartez eta geroko ebaluaketei esker. Proposatu eta erabilitako estrategien eraginkortasun maila ere erakusten dute. Helburu zehatzak eta neurgarriak izan behar dira, operatiboak eta ulertzeko errazak, beraz lortu nahi den helburua zehazten da, eta argitu eta mugatu egiten dira osotzen duten kontzeptuak, analisi sozialeko indikadoreak definitzen dira.
- **Ekintzak:** helburuen adierazpen zehatzak dira. Ekintzak elkarrekin lotzen dituen logika dute, bai jarraipen harreman bat existitzen delako haien artean (batzuk besteen menpe daude) edo, sail ezberdinetik edo tresna ezberdinen bitartez emaitza berbera lortzearen ondorio batutzailea bilatzen dutelako. Bi ekintza mota existitzen dira: izaera

finalistako *ekintza positiboa*, eta *zeharkako ekintza*, iraunkortasun ezaugarriekin. Plan honetan eredu biak erabiltzen dira baina zeharkakoei ematen zaie lehentasuna.

- **Ekintzaren arduradunak; Indikadoreak; eta, Aurrekontua** ere Ekintza Planaren ezaugarrien funtsezko atala ere dira.
- Aurrekontuaren kantitatea, **izartxo* bat** darama. Honek esan nahi du Udaleko ekintza garatzen duten pertsonen dedikazio orduen arabera kalkulaturik dagoela, 9, 11 eta 18 zenbakiak salbu, aurrekontu ekonomiko zehatza baitute.

4.1. INPLEMENTAZIORAKO NEURRIAK

Planaren inplementazio iraunkorra posible egiten duten **egituren** egokipen eta sorrera beharrezkoa da. Horrela, barne eta kanpo bi egitura mota ezberdintzen dira:

- 1) **Berdintasun, Osasun eta Inmigrazio Komisioa:** *transbertsalitate* edo *mainstreaming* arloan europar ildoak eta autonomikoak kontutan hartuta, Komisio Politiko zehatz berri bat ez sortzea erabaki da, baizik eta jadanik esiztitzen den komisioa **egokitzea**: "Berdintasun, Osasun eta Inmigrazio Komisioa", zeinen helburua Berdintasun Planaren onarpena, ebaluaketa eta jarraipena izango den. Honek, erantzunkizuna duten politikarien partehartzea ziurtatuko du, baita transbertsalitatea bultzatu ere.
- 2) **"Berdintasun Taldea"** Talde Teknikoaren sorrera, udaleko sail bakoitzeko teknikari arduradunek osotua. Talde honen helburua Berdintasun Planaren kudeaketa izango da eta berdintasun politiken iraunkortasuna eta sistematizaziorako ekintza estrategikoen ezarpena.
- 3) Emakumearen Etxean partehartzen duten emakumeen elkarteen **Foroa**. Bere partehartzea Planan, funtsezkoa da, ez bakarrik plana definitzerakoan, baizik eta honen kudeketan eta ebaluaketan.

- 4) Era berean, eta Ekintza Plan hau adierazten duen bezala, Balmasedako udaletik koordinazioa eta kooperazio instituzionala sustatuko da hainbat erakundeekin: Eudeleko Berdinsarea, Emakunde eta Bizkaiko Foru Aldundia.

4.2. EBALUAKETA MEKANISMOAK

Ebaluaketa funtsezko prozesua da zein ekintza eta emaitza positiboen berri ematen duen, baita hobetu behar denaren berri ere. Ebaluaketa sistema, estrategia dual batetik aztertuko da: betetze mailaren ebaluaketa, Emakunderi igorrita, 2/1988 Legeak adierazten duenez, erakunde honek ezartzen dituen irizpide eta metodologiarekin; eta ebaluaketa propioa kudeaketa prozesuei buruz, emaitzen kalitatea eta hobetze eremuekin.

Kanpo mailan: proiektuak Emakunderi bidaltzen jarraituko da bere ebaluaketarako, azken urteetan egin den bezala.

Barne mailan: egitura politikoak izango dira azken informea balioztatuko dutenak, Berdintasun, Osasun eta Inmigratio Zinegotzigoak landuta. Ebaluaketak ekintzen betetzearen analisia bilduko du ezarritako panifikazioa, indikadoreak, errekurtsoak, zinegotzigoak, egituren funtzionamendua eta lan taldeei dagokionez, prozesua erreztu ala oztopatzearekin erlazionatua, baita, aurreikusitako kronogramaren betetzea ere.

Ebaluazio sistema bikoitz honen helburua, ebaluaketa objektiboena eta kontrastatuena lortzea da, zein ikasitako hobetze ikasketak hurrengo planifikazioan erabiltzeko balioko duen. Horrela, errekurtsoen erabilpen optimoa ziurtatzen da, genero berdintasunaren aurrerapenerako ekintzen eragina hobetzen duena.

4.3. PLANA EZARTZEKO NEURRIAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA

G1 Programa: Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea

G1.1 Helburua: Berdintasunerako plan bat duten udalerrien kopurua handitzea

Ekintza	Arduraduna	Laguntzailea	Partehar-tzaile	Egutegia	Adierazleak	Aurrekontua
1. Adostatu udaleko Osoko Bilkuran, Balmasedako Emakume eta Gizonentzako 2015-2018 Berdintasunerako Plan estrategiko orokorra eta bere hedapena , inplikaturiko parte guztien artean	Alkatea	Berdintasun, Osasun eta Inmigrazio Zinegotzigoa	Zinegotzitza Guztiak	2015 - 2018	2015 Plana adostatu. 2015 Hedapena. Hautatutako eta informatutako partehartzaileak.	1.600€*
2. Oinarrizko errekurtsoen emana (materialak eta pertsonakoak) Bilkuran onartutako Planaren garapenerako, urteko herri aurrekontuetan.	Alkatetza	Berdintasun Zinegotzitza, Osasuna eta Inmigrazioa	Zinegotzitza guztiak	2015 - 2018	Ezarritako Urteko Aurrekontua Ebaluazioa Hobekuntzak	4.000 €*
3. Lengoaia eta irudi ez sexisten berrikuspena, egokipena eta sistematizazioa alkatetzaren dokumentuetan	Zinegotzitza guztiak	Berdintasun Zinegotzitza, Osasuna eta Inmigrazioa	Zinegotzitza guztiak	2015 - 2018	Aukeratutako eta egokitutako dokumentu kopurua Ebaluazioa Hobekuntzak	3.200 €*

4. Sexu aldagaiaren batuketa eta tratamendua dagozkion ekintzetan	Zinegotzitza guztiak	Berdintasun Zinegotzitza, Osasuna eta Inmigrazioa	---	2015 - 2018	Aurreikusitako eta burututako ekintzen kopurua Ebaluazioa Hobekuntzak	3.600 €*
5. Berdintasun arloan eskaintzen diren ikastaro eta tailerretan parte-hartzea	Zinegotzitza guztiak	Berdintasun Zinegotzitza, Osasuna eta Inmigrazioa	---	2015 - 2018	Ikastaro formatiboen kopurua urtero Partehartzaile kopurua/ikastaroa/sexua Ebaluazioa Ikusitako eta garatutako hobekuntzak	800 €*

PROGRAMA G3: Berdintasunerako barne-herriko koordinazio egiturak sortu eta indartu

HELBURUA G3.1: Berdintasun Planaren jasangarritasuna ziurtatu

Ekintza	Arduraduna	Laguntzailea	Partehar-zaileak	Egutegia	Adierazleak	Aurrekontua*
